



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN URA BERRERABILTZEKO PLANA IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANTSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN (INGURUMENAREN ARLOKO ENFORCEMENT DIGITALA)» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN. ESPEDIENTE ZENBAKIA: 3168.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa ☐ Urgentea ☐ Larrialdia ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Nerea Landaburu Aranzabal
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratuaren xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan uraren berrerabilera bultzatzeko plana idazteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea.

2.- Zer beharri erantzun behar zaion: BBUPEk proposatzen du uraren berrerabilera bultzatzeko plana idaztea, maiatzaren 11ko 4/2023 Errege Lege Dekretua betez. Errege Lege Dekretu horrek ezartzen duenez, «50.000tik gora biztanleko aglomerazio urbanoen hornidura, saneamendu eta arazketaren arloan eskumena duten administrazio publikoek hiri erabilerei lotutako uren berrerabilera sustatzen duten planak aurkeztu beharko dituzte arloko organismoan 2028ko abenduaren 31 baino lehen, zehazki, Uren Legearen testu bateginaren 109. artikuluen 2. paragrafoan aurreikusitako berrerabilera». Bada, kontuan hartuta aipatutako lanak garatzeko beharra, bai eta baliabide propioekin egitea ezinezkoa dela ere, laguntza tekniko hau kontratatu beharra dagoela ondorioztatzen da. Horregatik guztiagatik justifikatzen da giza baliabideak eta baliabide materialak hornitzeko laguntza teknikoko kontratu bat lizitatzea. Kontratuaren helburua da, Zuzendariordetza honetako teknikarien osagarri izanez, aipatutako lanak behar bezala aurrera eramanez ahal izatea beharrezko eraginkortasun teknikoko baldintzetan.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Plana hainbat fasetan idatziko da, eta hainbat apartatutan islatuko da. Hori bai, denak batera garatu behar dira, elkarren artean mendekotasun handia duen plangintza jarraitzen baitute. Plana zatikatu eta zati bakoitza modu independentean aurrera eramateak arriskuan jartzen du kontratua behar bezala gauzatzea,



B.- KONTRATUAREN XEDEA

koordinazio premia handia beharko litzatekeelako, plana lotetan banatu eta kontratista desberdinek gauzatzeak izugarri zailduko lukeen koordinazioa. Kontratua osorik gauzatzeak, lotetan banatu gabe, kudeaketa egokiagoa dakar uraren berrerabilera bultzatzeko kontratatu beharreko planaren idazketari irtenbide orokorra emateko, zereginen arteko lotura eta mendekotasuna oso garrantzitsua baita.

4.- CPV:

- 71000000-8 Arkitektura-, eraikuntza-, ingeniari- eta ikuskaritza-zerbitzuak
- 71242000-6 Proiektuak eta diseinuak egitea, bai eta aurrekontuak ere
- 71300000-1 Ingeniaritza-zerbitzuak

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

☐ BAI

☒ EZ

Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)

**HIRUROGEITA HAMABOST MILA ETA
LAUREHUN EURO (75.400,00 €)**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 75.400,00 euro

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:
452,64-601,12

- 2025. urtea: 40.000,00 €

- 2026. urtea: 35.400,00 €

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI ☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☒ BAI

☐ EZ

Funts mota:

Europar Batasunaren Next GenerationEU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB)



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

Erregelamenduaren arabera arautzen da.

% 82,75eko kofinantzaketa: (BEZari dagokiona izan ezik)

7.- Ordaintzeko modua: Lanak zehaztutako entregagaien arabera ordainduko dira.

- Hasierako diagnostiko-txostena (hasi eta bi hilabetera)
- Neurrien proposamena eta alternatiben ebaluazioa (hasi eta lau hilabetera)
- Uraren Berrerabilera Bultzatzeko Planaren azken idazketa (hasi eta sei hilabetera)

BBUPren aldetik kontratuaren arduradun den pertsonak entregagaiei dagozkien zenbatekoak partzialki ordaintzeko aukera baloratuko du, lanetan aurrera egin ahala.

8.- Konturako ordainketak: Ez dagokio

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: SEI (6) HILABETE

2.- Epe partzialak.

☒ BAI ☐ EZ

- Hasierako diagnostiko-txostena (hasi eta bi hilabetera)
- Neurrien proposamena eta alternatiben ebaluazioa (hasi eta lau hilabetera)
- Uraren Berrerabilera Bultzatzeko Planaren azken idazketa (hasi eta sei hilabetera)

BBUPren aldetik kontratuaren arduradun den pertsonak entregagaiei dagozkien zenbatekoak partzialki ordaintzeko aukera baloratuko du, lanetan aurrera egin ahala.

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: Ez dagokio

5.- Kontratua exekutatze tokia: BBUP

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena —aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea— kontratuaren balio zenbatetsia halako bat izan beharko da gutxienez. **(75.400,00 €)**



G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknika egiaztatzeko, lizitatzailerik zerrenda bat aurkeztuko dute, azken BOST (5) urteetan enpresa mailan egindako eta agiri honetan lehiatzen direnekin zerikusia duten lanen erreferentziez osatua (hau da, hiri-erabilerei lotutako urak berrerabiltzea sustatzen duten planak).

Zerrenda hori 2020. eta 2024. urteen artekoa izango da, biak barne, eta baztertu egingo da aurkezten den haien aurreko urteetako informazioa. Aipatutako epean emandako zerbitzu nagusien erreferentziei dagokienez, eskatuko da dagokion lotearen urtez urteko batezbestekoaren % 50 edo gehiago izatea exekuziorik handieneko urtean metatutako zenbatekoa.

Alderdi hori egiaztatzeko, ulertuko da urte anitzeko kontratuak modu uniformean gauzatu direla kontratuaren iraunaldian zehar, non eta kontrakoa berariaz egiaztatzen ez den. Erreferentzia zehatz horien artean, obra ongi egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira, egindako lanak deskribatzen dituztenak, bezero kontratatzaileak —persona publikoa nahiz pribatua— emandakoak. Hamar urte baino gutxiagoko antzintasuna duten enpresen kaudimena egiaztatzeko, lan horiek egiteko esleituko dituzten teknikariek horrelako proiektuetan egiaztatzen duten esperientzia hartuko da kontuan.

GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK ATXIKITZEA

Taldeak gutxienez honako kide hauek izan beharko ditu:

- Azpiegitura hidraulikoen proiektuen kudeaketan hamar urteko edo gehiagoko esperientzia duen aholkulari senior bat, azken bost urteetan ura berrerabiltzeko bideragarritasunarekin lotutako berrerabilera/ikerketa planekin zerikusia duen gutxienez kontratu batean parte hartu duena.
- Ura berrerabiltzeko plana idatziko duen espezialistak, azken bost urteetan gutxienez ura berrerabiltzeko plan bat izan behar du eginda, edo ura berrerabiltzeko plan baten bideragarritasunaren gaineko azterketa bat.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1.- Memoria teknika eta exekuzio-metodologia



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1.1.- Kontratuaren analisia

Lizitatzailleak proiektuaren eta haren ezaugarri nagusien azterlan bat egingo du, proiektuari buruzko ezagutza-maila adieraziko duena, eta proposatutako lan-metodologia garatzeko abiapuntu izango diren oinarriak justifikatuko dituena.

1.2.- Lan- eta antolaketa-metodologia

Lanak banatu diren lan bakoitzerako jarraitu beharreko metodologia argi zehaztuko da; lan horiek preskripzio teknikoen agirian identifikatuta egongo dira.

Egin beharreko lanaren kalitatea bermatzeko proposatutako neurriak deskribatuko dira, eta lan garrantzitsuenen jarraipena, kontrola eta garapena egiteko proposatzen diren prozedura espezifikoak adieraziko dira, lan horien xedearen ezaugarrietara egokituta eta zehaztuta.

Dagokion kontratuari aplikatu behar zaizkion behar beste alderdi osagarri adieraziko dira eskatutako prestazio osoa optimizatzeko edo hobetzeko.

2.- Kontratuaren zerbitzura jarritako baliabide teknikoak

2.1.- Proposatutako talde teknikoa, antolaketa eta zerbitzuaren egokitasuna.

Esleitutako talde teknikoaren osaera, kideen kualifikazioa, dedikazioa eta antolaketa, kontratuaren xedera egokitze aldera, betiere bertan jasotako atazen arabera.

Taldeak gutxienez honako kide hauek izan beharko ditu:

- Azpiegitura hidraulikoen proiektuen kudeaketan hamar urteko edo gehiagoko esperientzia duen aholkulari senior bat, azken bost urteetan ura berrerabiltzeko bideragarritasunarekin lotutako berrerabilera/ikerketa planekin zerikusia duen gutxienez kontratu batean parte hartu duena.
- Ura berrerabiltzeko plana idatziko duen espezialistak, azken bost urteetan gutxienez ura berrerabiltzeko plan bat izan behar du eginda, edo ura berrerabiltzeko plan baten bideragarritasunaren gaineko azterketa bat.

Ekipo teknikoko kide bakoitzaren curriculum vitae laburtua erantsiko da, egin beharreko lanei buruzkoa. Formularen bidez ebaluatutako irizpideen ondorengo balorazioaren ondorioetarako, ezin izango da datu nominalik edo sexua adierazten duenik agertu. Proposatutako talde teknikoko kideen esperientzia behar bezala egiaztatu beharko da.

Lizitatzailleak laburpen-taula bat aurkeztuko du Excel formatuan. Taula horretan, langileen proposamena jasoko da, eta adieraziko da enpresa adjudikaziodunarenak diren edo ez diren langileak. Halaber, kide bakoitzaren esperientzia behar bezala bereiziko da, eta kontratuarekiko arduraldia zehaztuko da.

Esperientzia bakarrik kontabilizatuko da baldin eta eskatzaileek frogatzen badute parte hartu duten lanetan lizitazio-kontraturako eskatzen den gutxienerako titulazio berarekin jardun dutela.

Esperientzia kalkulatzeko, baldin eta langileek aldi berean esku hartzen badute proiektu, azterketa edo plan zuzentzaileen gainean, ezin izango dira aldi bereko epeak batu, eta esperientzia hori behar bezala



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

diskretizatu beharko da, langileak horietako bakoitzean duen dedikazioaren eta/edo parte hartzeko denbora errealearen arabera. Aztergai den pertsonak proposatzen den lanpostuari dagozkion eginkizunez, karguz edo kategoriaz bestelakoak bete dituen proiektu, azterketa edo plan zuzentzaileetan, edo jarduerarik gabeko aldietan, edo proiektu/azterlan/plan zuzentzaileen idazketarekin zerikusirik ez duten lanetan aritutakoetan, benetako epe hori zero dela joko da.

2.2.- Lantaldearen antolaketa eta zerbitzuaren egokitasuna.

Aurreko atalean deskribatutako metodologiarekin eta prozedurekin bat etorritz, lizitatzailleak kontratua gauzatzeko aurreikusten den antolamendua ezarriko du, eta hura osatzen duten profiletako bakoitzari esleitutako harremanak eta funtzioak zehaztuko ditu, langileak enpresako langileak edo kanpoko langileak diren adieraziz.

Lanen garapen-plan bat ere sartu behar da, non lan horiek egiteko mugarri batzuk jaso behar diren. Agirian adierazitako jarduerak garatzeko esleitutako denbora partzial bakoitza behar bezala justifikatu behar da, eta berariaz adierazi behar da, ahalik eta banakatze handienarekin, zer dedikazio esleitu zaion lanak egiteko proposatutako teknikari bakoitzari.

Kontratua gauzatzeko zehaztu diren langileek BBUPen bulegoetako bileretara joateko prest egon behar dute, 24 ordu lehenago jakinarazita, eta telematikoki ere bai.

2.3. Baliabideak eta azpiegitura teknikoa.

Lizitatzailleak kontratuaren eskura jarritako baliabideak eta azpiegitura. Beste alderdi batzuen artean, hauek baloratu behar dira:

- Ingeniaritza lan gehienak egingo diren bulegoa zehaztuko dute.
- Instalazioetan datuak hartzeko, neurketak landan egiteko, gune itxietara sartzeko eta abarretarako baliabide teknikoak. Laneko arriskuen prebentzioko helburuak lortzeko.
- Lanak egiteko lantaldearen esku jarriko diren baliabide teknikoak, hala nola testuak editatzeko eta planoak eta aurrekontuak egiteko informatika-ekipoak.

3.- Irizpide sozialak.

Kontratua exekutatzen duten langileei aplikatutako berdintasun-neurriak baloratuko dira. Zehazki, kontratua exekutatzen duten langileei berdintasun-esparruan emandako prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazio-kanpainak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian definitutako unitateen prezio unitarioak sartu behar dira, betiere Preskripzio Tekniko Partikularren Agiriko dagokion apartatuan ezarritako kondizioen arabera.
- Lan guztiak exekutatzeke aurrekontua, prezio unitarioetan egindako lanen batura oinarri hartuta; lan horien neurketak bat etorri behar da aurrekontu partzialetakoarekin.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoaren ezberdina bada soilik):
 - Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Menthaka Corral.

Kideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{Bmax - BBB} \times 2$$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

(Bmax - BBB)

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

1.- Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia (23 puntu)

- 1.1.- Kontratuaren analisisa (6 puntu)
- 1.2.- Lan-metodologia eta antolakuntza (17 puntu)

2.- Kontratuaren eskura jarritako baliabide teknikoak (25 puntu)

- 2.1.- Proposatutako talde teknikoa, antolaketa eta zerbitzuaren egokitasuna (12 puntu).
- 2.2.- Taldearen antolaketa eta zerbitzuaren egokitasuna (10 puntu)
- 2.3. Baliabide eta azpiegitura teknikoa (3 puntu).

3.- Irizpide sozialak (2 puntu)

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaille bakarria egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaille egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaille egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarria baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea: Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako kontratuei dagokienez, aurreikusi gabeko aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/kondizio desberdinak ekartzearen ondorioz.

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI ☒ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA



OSAGAIA:	Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politikatan: I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren kontrako borroka. II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak. III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa. IV. XXI. menderako administrazioa. V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzaile gisa sustatzea. VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea. VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena. VII. Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak. IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea. X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede. Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. 5. osagaiaren barruan («Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea»), 3. inbertsioa sartzen da: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren uraren sektoreko trantsizio digitala; osagai horretan kokatzen da lizitazio honen edukia; kontratistak/azpikontratistak adierazi du horren berri duela eta bere jarduera-eremuaren barruan betetzeko konpromisoa hartzen du. Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Europa zein Espainia mailako suspertze-planen araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin, esparru hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira: 3. inbertsioa: C5.I3a azpineurria, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzekari buruzkoa. Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren ziklo urbanoaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren ziklo urbanoaren kudeaketaren efizientzia orokorra hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, <u>Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana nola diseinatuta dagoen aintzat hartuta, honako CID helburu hau betetzen: «Erremintak martxan jartzea baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko, eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko» (3. inbertsioa: CID #79).</u> Azken helburua da 91/271/EEE Zuzentaraua betetzea bermatzea, energia-efizientziaren irizpideak betetzea, ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzea eta ur-galerak murriztea. Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 5. osagaiaren 3. inbertsioan (C5.I3) jasota daudenez, egingo diren jarduketak bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren (EB) «Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia» VI. eranskinaren esku hartzeko honako arloarekin: <u>3. inbertsioa: 040 – «Ura kudeatzea eta baliabide hidrikoak kontserbatzea (barne hartuta ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilera eta ihesak murriztea)».</u>
-----------------	---



	Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarriak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako hauek jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko). Bete behar du, era berean, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epe kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.
JARDUKETA:	2. SEEPE – URDATA BIZKAIA GR 04 ACT A5
Kontratazio- organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzen o esteka	https://www.consorciodeaguas.eus/web/Transparencia/PDF/INSTITUCIONAL/CAS/Plan-integridad-medidas-antifraude.pdf



BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Lantaldeak ezinbesteko ekipamendu-baliabide tekniko guztiak izango ditu. Zehazki, eskura izan beharko ditu kontratuaren baldintza tekniko partikularren agiria betetzeko behar diren hardwarea eta softwarea.

Hasiera batean proposatutako taldeko kideren batek baja hartzen badu, kontratistaren ordezkariak beste kide bat proposatuko dio BBUPeko kontratuaren arduradunari, baja hartu eta 15 egun igaro baino lehen, jakinaren gainean egon dadin. Proposatutako kideak nahitaez bete beharko ditu langileei eska dakizkiekeen kontratu-baldintzak, eta ordezkorearen kaudimen bera edo handiagoa izan beharko du.

Nolanahi ere, bai ordezkariak bai taldeko arduradunak prest egon beharko dute, kontratuaren arduradunak hala eskatuta, lanen aldizkako jarraipena egiteko.

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute indarrean dauden lege-xedapenen arabera Administrazioarekin zerbitzu teknikoak gauzatzeko kontratuak sinatzeko ahalmena duten pertsona juridiko guztiek. Bereziki, materialak edo osagaiak fabrikatzen dituzten sozietateen eta enpresa sustatzaile, eraikitzaile edo instalatzaileen independentzia juridiko eta ekonomiko osoa egiaztatzen duen ziurtagiria edo berariazko adierazpena eskatuko da. Era berean, esleipendunak izanez gero, konprometitu beharko dute BBUPekiko kontratu-loturak irauten duen bitartean hirugarrenentzako eskaintzak egiten ez laguntzera.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak kontratu honi ordezkari bat atxiki beharko dio, behar adinako gaitasuna duena kontratuaren harremanei eragiten dien guztian jarduteko eta/edo enpresa ordezkatzeko. Ordezkari horrek eta adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.